

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2025eko urtarrila

2025eko urtarrilean, Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak % 5,2 igo dira eta ostatu-gauak % 7,0

Atzerriko jatorria duten bisitarien sarrerak % 11,7 gehitu dira eta hauen ostatu-gauak % 9,7

Eustaten datuen arabera, **2025eko urtarrilean** % 5,2 igo dira sarrerak Euskal AEko hotel-establezimenduetan eta % 7,0 ostatu-gauak urte artean. Erregistratutako 207.500 sarrerek 391.536 ostatu-gau izatea eragin dute guztira.

Sarreraren % 35,6 eta ostatu-gauen % 36,9 atzeritik etorritako pertsonenak izan dira, portzentajeak % 11,7 igo ondoren sarreraren kasuan eta % 9,7 ostatu-gauen kasuan.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gualdiak eta batez besteko egonaldia. Urtarrila 2025

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia	
	2025/01	m/m-12 (%)	2025/01	m/m-12 (%)	2025/01	2024/01
EUSKAL AE	207.500	5,2	391.536	7,0	1,89	1,86
Estatukoak	133.620	2,0	247.144	5,5	1,85	1,79
Atzeritarrak	73.880	11,7	144.392	9,7	1,95	1,99
Araba/Álava	30.313	2,2	67.362	9,8	2,22	2,07
Estatukoak	23.486	2,3	51.601	16,6	2,20	1,93
Atzeritarrak	6.827	1,8	15.761	-7,7	2,31	2,55
Vitoria-Gasteiz	25.636	0,2	59.770	8,9	2,33	2,15
Bizkaia	89.738	4,8	164.092	5,7	1,83	1,81
Estatukoak	61.801	4,0	107.271	5,4	1,74	1,71
Atzeritarrak	27.937	6,7	56.821	6,3	2,03	2,04
Bilbao	66.206	5,8	120.365	5,2	1,82	1,83
Gipuzkoa	87.449	6,8	160.082	7,2	1,83	1,82
Estatukoak	48.333	-0,7	88.272	0,1	1,83	1,81
Atzeritarrak	39.116	17,6	71.810	17,5	1,84	1,84
Donostia / San Sebastian	63.275	8,4	114.970	9,8	1,82	1,79

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Otsailaren 20a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Araban 30.313 sarrera eta 67.362 ostatu-gau erregistratu dira, aurreko urteko urtarrilean baino % 2,2 eta % 9,8 gehiago, hurrenez hurren. Gipuzkoan, 2025eko urtarrilean, 87.449 sarrera erregistratu dira, 2024ko urtarrilean baino % 6,8 gehiago, 160.082 ostatu-gau ematea eraginez, aurreko urteko hil berean baino % 7,2 gehiago. Bizkaian, bestalde, sarrerak % 4,8 igo dira eta ostatu-gauak % 5,7; guztira 89.738 sarrera eta 164.092 ostatu-gau erregistratu dira.

Hiriburuen arabera, sarrerren kopuruak gora egin du Donostian (% 8,4), Bilbon (% 5,8) eta Gasteizen (% 0,2). Ostatu-gauen kopurua, aurreko urteko urtarilaren aldean, % 9,8 igo da Donostian, % 5,2 Bilbon eta % 8,9 Gasteizen.

Euskal AEko hotel-establezimenduetan batez besteko egonaldia, 2025eko urtarilean, 1,89 egunekoa izan da, aurreko urteko hil berean izandakoa (1,86 egun) baino pixka bat handiagoa. Batez besteko egonaldia bidaiariak gaua igarotzen duten establezimenduetan batez beste ematen duten egun kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEn ematen duten egonaldi osoaren iraupenari.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. Urtarrila 2025

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2025/01	p.p. *	2025/01	p.p. *	2025/01	m/m-12 (%)	2025/01	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	39,4	0,9	48,6	0,5	75,37	-0,5	36,65	0,5
Araba/Álava	43,6	2,5	58,1	5,8	62,24	1,3	36,19	12,5
Vitoria-Gasteiz	45,5	1,9	62,3	5,5	59,26	1,2	36,91	11,1
Bizkaia	37,0	1,5	46,3	0,5	76,94	-4,3	35,66	-3,2
Bilbao	41,6	1,2	50,6	-0,6	80,78	-7,0	40,90	-8,0
Gipuzkoa	40,5	-0,6	47,7	-1,6	79,57	4,2	37,94	0,8
Donostia / San Sebastian	44,8	1,4	50,5	0,7	88,30	4,5	44,55	6,0

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetean izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Otsailaren 20a

Iturria: Eustat, Establezimendu Turistiko Hartzailleen Inkesta

2025eko urtarileko okupazio-maila, Euskal AE osoan, % 39,4koa izan da plazen arabera neurtuta, eta % 48,6koa logelen arabera neurtuta. 2024ko urtarilaren aldean, igoerak ehuneko 0,9 eta 0,5 puntukoak izan dira, hurrenez hurren.

Euskal AEn, 2025eko urtarilean, eguneko aplikatutako batez besteko tarifa 75,4 eurokoa izan da bainugela duen logela bikoitz bati edo ADR bati; hau da, % 0,5 jaitsi da aurreko urteko urtarilaren aldean. ADRa 79,6 eurotan kokatu da Gipuzkoan, 76,9 eurotan Bizkaian eta 62,2 eurotan Araban. Hiriburuen arabera, ADRaren balioak hauek izan dira: 88,3 euro Donostian, 80,8 euro Bilbon eta 59,3 euro Gasteizen.

Euskal AEko hotel-establezimenduetan, 2025eko urtarilean, RevPar edo gela eskuragarri bakoitzeko batez besteko diru-sarrerak 36,7 euro izan dira, aurreko urteko hil berean baino % 0,5 gehiago.

Informazio-oharra

2025eko urtarrileko hotelen ETHren erantzun-tasa **95,1**ekoa izan da. Eustatek eskerrak eman dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Euskal AEko turismoko datu-esploratzailea. Hotel-establezimenduak

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62